



MAHAI BASKULATZAILEARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Probak gorputz-jarrera aldaketen bidez zorabialdia edo zorabioa eragitea bilatzen du, elektrokardiograma eta tentsio arteriala behatzen diren bitartean. Etzanda egotetik zutik egotera pasatzen denean, gorputzak gaizki erreakzionatzen duen egiaztatzen saiatzen da.

Zertan datza?

Proba hasteko, tentsio arteriala etzanda hartzen da, eta, ondoren, zutik.

Ondoren, elektrokardiograma bat erabiliz monitorizatuko da (EKG) eta masajea emango zaizu lepoan. Jarraian, ohatila jarri behar da, 60 graduko inklinazioan, eta horrela egon behar duzu 10 minutuz. Zorabialdia gertatu ez bada, mingainaren azpian esprai bat emango dizute, eta 5-10 minutu itxaron beharko da, gehienez ere.

Denbora horretan, artatzen zaituen profesional-taldeak gertatzen diren aldaketei erreparatuko die.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da proba baino gutxienez 6 ordu lehenago ezer ez jatea eta ez edatea. Gosariko ohiko medikazioa har dezakezu, ur pixka bat edanez.

Antikoagulatzaileak hartzen badituzu (tronboak edo koaguluak sortzea saihesten duen medikamentua), mediku-taldeak egun horietan nola hartu azalduko zizun.

Diabetesa baduzu, bete jarraibide hauek:

- Aurreko gauean: hartu ohiko medikazioa.
- Prozeduraren egunean: ez hartu diabetesaren aurkako pilularik gosarian.
- Ez jarri INTSULINA AZKARRIK prozedura baino lehen.
- Goizean intsulina erabiltzen baduzu, prozeduraren ONDOREN jarri.

Hortzordeak badituzu, harrera-solairuan sartzen zaren unean kendu beharko dituzu.

Audifonoak erabiltzen badituzu, izan itzazu jarrita ondo komunikatu ahal izateko.

Probara lagunduta joan zaitez, agian laguntza beharko baituzu aaitzean.

Nora joan behar dut proba egunean?

5. solairura, AUO-Txagorritxuko D eremura.



Nola egingo didate proba?

Ohatilan etzango zaituzte, gorputza gerritik gora agerian duzula, eta elektrodoak jarriko zaizkizu EKGa ikusteko proba osoan, baita mahuka bat ere, tentsio arteriala hartzeko. Erizainak zainetako bide bat jarriko dizu besoan, behar izanez gero medikazioa emateko. Probaren gutxi gorabeherako iraupena aldakorra da, 30-60 minutu artekoa.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Itxarongelan egongo zara, zure onera etorri arte.
Ezingo duzu jan proba amaitzen denetik 2 ordu igaro arte.